

Hitzak sarean

Pello Salabururi esker onez

Itziar Laka (arg.)



eman ta zabal lezu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Hitzak sarean [Recurso electrónico]: Pello Salabururi esker onez / Itziar Laka (koord.). – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2020]. – 1 recurso en línea : PDF (170 p.)

Textos en euskara, inglés y español.

Incluye referencias bibliográficas.

Modo de acceso: World Wide Web

ISBN: 978-84-1319-111-9.

1. Euskara (Lengua) – Lexicografía. 2. Euskara (Lengua) – Gramática. I. Laka, Itziar, coord. II. Salaburu Etxeberria, Pello, homenajeado.

(0.034)809.169-3

(0.034)809.169-5

UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak sustatutako argitalpena.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-111-9

(Euskal) Bozak: erdikoak, inkoatiboak eta arazleak¹

ANE BERRO

Deustuko Unibertsitatea

BEATRIZ FERNÁNDEZ

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Atarikoak

Argumentuak gaineratzeko mekanismoak, batez ere egitura aplikatiboak, euskal sintaxilarien jomuga izan dira laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, baina argumentuak gutxitzeko mekanismoek, hots, *iragangaiztearekin* (ingeleseaz, *detransitivization*) zerikusia duten egiturek, salbuespenak salbuespen, ez dute horrenbesteko arretarik jaso euskaraz. Ere ezezagunago honetan sakondu nahian, lan honetan, iragangaiztearekin zerikusia duten egitura *inpersonal* deitutarikoak aztertuko ditugu, hots, predikatu iragankor baten gainean eraiki arren, iragangaizak diren egiturak, hala nola, *liburuak erraz saltzen dira* bezalakoak (Ortiz de Urbina 1989, 1991, 2003, 2011-2019; Albizu 1997, 2001). Honelako egiturak berriki aztertu ditu Urrestarazuk (2019), eta Ahn & Sailor-en (2014) lanean oinarrituz, *erdiko boz*eko egituratzat hartu ditu, *boz aktibo*ko egituratik bereiziz (e.g. *liburuak erraz saltzen dituzte*). Lan honetan, Urrestarazuren lanari segida emanez erakutsiko dugunez, euskararen erdiko egiturak ez zaizkie bete-bete lotzen ingelesez edo alemanez erdikoei egotzi izan zaizkien ezaugarriei, eta antzekotasun handiagoa dute hizkuntza erromantzeetako kideko egiturekin. Alde horretatik, Ackema & Schoorllemmer-ek (2005) erdiko egituren artean bereizten dituzten bi motetatik, hots, 1-motako erdikoak eta 2-motako erdikoak, euskararenak 2-motakoak direla dirudi. Erdikoak, bestalde, iragangaizak diren aldetik *inkoatibo*en oso antzekoak dira (*hil da*), nahiz eta ez diren egitura bera, eta *arazle*etatik (*hil du*) bereizten dira —inkoatibo/arazle alternantziarako, ikus Oihartzabal (2003), Ormazabal (2008), eta Berro *et al.* (2018)—. Hori dela eta, lan honetan hiru egiturak jarriko ditugu harremanetan eta aztertuko dugu zein diren inkoatibo/arazle alternantzianez ezik, erdikoetan ere ager daitezkeen predikatuak. Iku-siko dugunez, aldaera arazlea duten predikatuak beti ager daitezke erdikoetan; aldaera inkoatiboa baino ez dutenak, berriz, inoiz ez.

Lanak ondoko atal hauek izango ditu: 1. atalean, erdiko egiturak zedarriztatuko ditugu; 2. atalean, ingelesezko erdikoak eta euskararenak konparatuko ditugu beste hizkuntza batzuen artean; 3. atalean, erdikoak, inkoatiboak eta arazleak jarriko ditugu harremanetan predikatu jakinak aztertuz; eta 4. atalak bilduko ditu ondorio nagusiak.

¹ Lan honen egileek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso dute IT1169-19 ikerketa proiektuaren bidez eta Espainiako Gobernuko Zientziaren, Berrikuntzaren eta Unibertsitateen Ministerioarena PGC2018-096380-B-I00 ikerketa proiektuaren bidez.

Lan hau Pello Salaburu adiskideari eskaini nahi diogu. Salaburu dago euskaldunok eskura ditugun bi gramatika egitasmo handiren atzean. Batetik, 1997az geroztik Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordearen burua den aldetik, bere zuzendaritzapean idatzi da azken bi hamarkadetan *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak(EGLU)* (Euskaltzaindia 1991-2011). Bestetik, bere ekimenez eman zen argitara 2011an *Sareko Euskal Gramatika (SEG)* (Salaburu, Goenaga & Sarasola 2011-gaur arte), sarean euskaraz dagoen gramatika bakarra. Euskal sintaxilariok zordun gatzazkio, bezaz, eta lan hau gure esker onaren adierazgarria da.

1. Erdiko boza zedarriztatzen

Euskaraz badira zenbait egitura, predikatu iragankor baten gainean eraikitzen diren arren, iragangaitzat har daitezkeenak. Konpara bitez (1a) eta (1b).

- (1) a. Argialetxeek liburuak erraz saltzen dituzte.
b. Liburuak erruz saltzen dira.

(1b) egitura *inpersonaltzat* hartu izan da euskal sintaxi modernoan (Ortiz de Urbina 1989, 1991, 2003, 2011-2019; Albizu 1997, 2001). Alabaina, deitura beraren azpian askotariko egiturak jaso direnez, guztien artean sintaktikoki *iragangaiztearekin* (ing. *detransitivization*) zerikusia dutenak, (1b) bezalakoak alegia, gainerakoetatik bereizi nahi izan ditu Urrestarazuk (2019). Hala, *bozarekin* lotu eta *erdiko boz*eko egiturak direla aldarrikatu du, Sailor & Ahn-ek (2010) eta Ahn & Sailor-ek (2014) ingelesezko egindako proposamenetan oinarrituz. Egile hauek boz aktiboa bereizten dute boz *ez-aktibotik*, eta *ez-aktiboan* bere aldetik boz pasiboa erdiko bozetik. Ingelesezko erdiko bozeko egitura (2b) konpara daiteke boz aktibokoarekin (2a) (Keyser & Roeper 1984: 381) eta boz pasibokoarekin (2c) (Ahn & Sailor 2014)—.

- (2) a. Someone bribed bureaucrats. (boz aktiboa)
b. Bureaucrats bribe easily. (erdiko boza)
c. Bureaucrats are bribed easily. (boz pasiboa)

Erdiko bozeko egiturak zedarriztatzeko, bost ezaugarri nagusi aipatzen dituzte Ahn & Sailor-ek (2014: 4). Lehenik eta behin, erdiko bozeko egiturako subjektua (*bureaucrats* ‘burokratak’) predikatuaren (*bribe* ‘erosi’) barne argumentua da. Bigarrenik, erdiko bozeko egiturak ezin daitezke pasibo bihurtu. Hirugarrenik, kanpo argumentua sintaxitik kanpo dago. Laugarrenik, kanpo argumentu inplizitu bat dute, eta bosgarren eta azkenik, predikatu arazle, *ez-estatibo* baten gainean eraikitzen dira.

Euskarari dagokionez, Urrestarazuk (2019) dio boz aktiboko zein erdiko bozeko egiturak daudela, (3a) eta (3b) hurrenez hurren —baita (1a) eta (1b)—, eta (3b, 1b) bezalakoek Ahn & Sailor-ek erdiko egiturei egozten dizkieten lehen lau ezaugarriak betetzen dituztela —itzuliko gara geroago (2. atala) bosgarren ezaugarriara, Urrestarazuk aztertzeke uzten duena—.

- (3) a. Baten batek burokratak erosten ditu. (boz aktiboa)
b. Burokratak erraz erosten dira. (erdiko boza)

Bestalde, ingelesez ez bezala zeinetan (2c) bezalako egiturak dauden, euskaraz boz pasiborik dagoela dirudi, (3b) erdikoa ez, baizik eta pasiboa ez bada behintzat. Izatez, euskal sintaxi

modernoan pasibotzat hartu diren egiturak, (4) bezalakoak esate baterako (Euskaltzaindia 1991, 1993; Salaburu & Lakar 2005 beste batzuen artean), ez zaizkie lotzen hizkuntza tipologiak zein gramatika teoriak pasibotzat jotzen dituzten egiturei. Halakoak, beraz, alde batera utziko ditugu —ikus Ortiz de Urbina & Uribe-Etxebarria (1991) azterbide baterako—.

- (4) a. Orduan cumplitua izan cen Jeremiaz profetaz errana izan cena
b. Eta an presentatu cioten perlesiaz artu bat goatze batean etzana

(Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, Salaburu & Lakar 2005: 146)

Aise ikus daiteke ingelesezko (2a) eta euskarazko (3a) egiturak harremanetan daudela. Bietan predikatu iragankor bat dago (*bribe/erosi*), eta espero bezala, bina argumentu ageri dira, hots, subjektu eta osagarria, egile eta gai rol tematikoa jaso dutenak, hurrenez hurren. Beste alde batetik, (3b) egitura printzipioz ingelesezko boz ez-aktiboko bi egituretako edozeinekin jar liteke harremanetan: edo (2b) erdiko bozeko egiturekin eta (2c) boz pasibokoarekin. Izan ere, batak zein besteak iragangaiztearekin dute zerikusia: ez dira berez iragangaitzak, predikatua iragankor baten ganean eraikitzen direlako, baina sintaktikoki iragangaiztu egin dira, argumentu bakarreko egiturak sortaraziz. Hori bera esan daiteke baita (3b) egiturari dagokionez: argumentu bakarra dago (*burokratak*), nahiz eta predikatua (*erosi*) iragankorra den. Egitura iragangaiztu hauetan —(2b,c) eta (3b)—, bestalde, argumentuetako bat *goratu* (ing. *promote*) dela dirudi, izatez barne argumentua delako subjektu gunean ageri dena, eta beste argumentuetako bat, zehazki kanpo argumentua, berriz, *beheratu* (ing. *demote*) edo are gehiago, ezabatu. Boz pasiboko (2c) egituran, beheratu den subjektu logikoa ez da esplizituki ageri, baina adjuntu baten bitartez berreskuratu liteke,² *by* preposizioa buru duen sintagma batekin (*by managers*) (5a). Erdiko bozeko egituran, aldiz, badago kanpo argumentu inplizitu bat, baina boz pasiboko egituran ez bezala ezin daiteke sintaktikoki *by*-sintagma batez burutu (5b) (Keyser & Roeper 1984: 406). Hori bera esan daiteke (3b) egituraz den bezainbatean, Urrestarazuk dioenez: kanpo argumentua ezin daiteke sintaktikoki berreskuratu (5c). Alde honetatik behintzat (3b) egitura erdiko bozetik gertuago dago boz pasibotik baino.

- (5) a. Bureaucrats are bribed easily by managers. (boz pasiboa)
b. *Bureaucrats bribe easily by managers. (erdiko boza)
c. *Burokratak erraz erosten dira managerrez/managerrekin. (erdiko boza)

Gainerakoan, Urrestarazuren ustez (2019), Ahn & Sailor-ek (2014: 4) erdiko bozeko egiturak zedarriztatzeko aipatzen dituzten ezaugarri nagusiak betetzen dituzte. Hasteko, esan berri dugun bezala, erdiko bozeko egiturako subjektua predikatuaren barne argumentua da; beste alde batetik, kanpo argumenturik ezin daiteke sintaktikoki inola berreskuratu, esate baterako, komitatibo edo instrumental baten bidez, eta sintaxitik kanpo dago beraz; azkenik, kanpo argumentu inplizitu bat dago (ikus Keyser & Roeper 1984 eta Bhatt & Pancheva 2005 eztabaidarako). Beheko taulan ikus daitezke bi hizkuntzen ezaugarri nagusiak erdiko bozeko egiturei dagokienez.

² Ikus, alabaina, Siewierska (2013).

1. taula

Erdiko egituren ezaugarri nagusiak:
 ingelesa (Anh & Sailor 2014) vs. euskara (Urrestarazu 2019)

Erdikoegiturak	ingelesa	euskara
subjektua, barne argumentua	✓	✓
pasiborik ezin osatu	✓	—
kanpo argumentua sintaxitik at	✓	✓
kanpo argumentu inplizitua	✓	✓

2. Erdiko boza: ingelesa, euskara eta beste

Ezaugarriok ikusirik, ez dirudi printzipioz eragozpenik dagoenik (1b) eta (3b) bezalako boz ez-aktiboko egiturak erdikoak direla irizteko. Alabaina, ingelesez bederen erdiko bozeko egiturek badituzte beste zenbait ezaugarri euskaraz itxuraz betetzen ez direnak. Lehenik eta behin, Keyser & Roeper-en (1984) arabera —aurrerantzean, K&R (1984)—, erdiko bozeko egiturak generikoak dira eta ez dute, beraz, gertaera zehatzik adierazten (*ez-ebentiboak* dira); ondorioz, ezin daitezke denbora zehatz bateko gertaerekin lotu —ikus, alabaina, Sailor & Ahn (2010: 6-7)—. Hala, (6a) ezgramatikala da (K&R 1984: 384). Oso bestela, euskaraz kideko egiturak gramatikalak direla dirudi (6b). Kontuan izan, dena dela, (6b) adibideak aspektu burutua duela, berebiziko garrantzia duena egitura ebentiboa edo gertaerazkoa izateko.

- (6) a. ?Yesterday, the mayor bribed easily, according to the newspaper.
 b. Atzo udalen osaketan, alkateak erosi ziren, egunkariaren arabera.

Bigarrenik, gertaerarik adierazten ez dutenez, ezin daitezke aginterazko perpausetan ageri (7a) ezta egitura progresiboetan ere (7b). Alde horretatik, predikatu estatiboak bezalakoak dira. Erdiko bozeko adibideak dira (7a,b) eta *know* ‘jakin’ aditz estatibokoak (7c,d) (K&R 1984: 385).

- (7) a. *Bribe easily, bureaucrat!
 b. *Bureaucrats are bribing easily.
 c. *Know the answer, John!
 d. *John is knowing the answer.

Honetan, ez dirudi oso ezberdin jokatzeko dutenik ingelesezko erdikoak eta hemen aztergai ditugun egiturak: murriztapen berak dituzte bai aginterari (8a) bai progresiboari (8b) dagokionez, estatiboek bezalaxe —progresiboaren azterketarako, ikus, Laka (2003, 2006)—. Jakina, (8a) eta (8b) gramatikalak dira, erdiko egitura gisa interpretatzen ez badira.

- (8) a. (*)Eros(i) erraz, burokrata!
 b. (*)Burokratak erraz erosten ari dira.
 c. *Jakin ezazu erantzuna, Jon!
 d. *Jon erantzuna jakiten ari da.

Hirugarrenik, ingelesez, erdiko bozako egiturak adberbioekin batera agertu behar dira gramatikalak izateko (K&R 1984: 385) —ikus baita Sailor & Byron (2010: 9, 10 oin-oharra)—. Alde horretatik ere, euskaraz ez dirudi halako murriztapenik dagoenik.

- (9) a. *Bureaucrats bribe.
b. Burokratak erosten dira.

Ezaugarriok laburbilduta daude beheko taulan, Urrestarazuren (2019) tipologia osatzera datozenak:

2. taula

Erdiko egituren ezaugarriak:
ingeleza (K&R 1984) vs. euskara

Erdikoegiturak	ingeleza	euskara
ez-ebentiboak	✓	✗ / ✓
aginterarik ez	✓	✓
progresiborik ez	✓	✓
adberbioek lagunduta	✓	✗ / ✓
oharmenezko aditza + perpaus txikia	✓	—

Laburbilduz, euskaraz, Ahn & Sailor-ek (2014) ingelesezko erdiko egiturez aipatzen dituzten ezaugarri nagusiak betetzen badira ere, badira beste zenbait ezaugarri (K&R 1984) betetzen ez direnak. Zorionez, ez da euskara bakarrik ingelesezko erdiko tipologia horretatik aldentzen dena. Beste hizkuntza batzuetan, hala nola, hizkuntza erromantzeetan, ez dirudi erdikoek ingelesezko kideko egituren ezaugarri berak dituztenik. Adibidez, Ahn & Sailor-ek (2014) lanean, erdikoiei egozten dizkieten ezaugarrien artean diote egitura hauek predikatu arazle, ez-estatibo baten gainean eraikitzen direla (ikus 1. atala), eta nagusiki hala dela dirudi. Alabaina, hizkuntza erromantzeetan —eta euskaraz ere hala da—, erdikoak ez dira predikatu arazleeta mugatzen, Hale & Keyser (1988: 51-52) aspaldi samar konturatu ziren bezala. Adibidez, *see* oharmenezko aditza ezin daiteke ingelesezko erdiko bozan erabili (10a), baina gaztelaniaz bai (10b) —eta euskaraz ere bai (10c)—.

- (10) a. *Planets see easily.
b. Los planetas se ven facilmente. (Hale & Keyser 1988: 51)
c. Planetak erraz ikusten dira.

Eta frantsesak ere gaztelaniaz eta euskaraz bezalaxe jokatzen duela dirudi:

- (11) La Tour Eiffel se voit de loin. (Ackema & Schoorllemmer 2005)

Beharbada, Hale & Keyser-ek (1988: 51) dioten bezala, hizkuntza erromantzeetako erdiko egituretan ager daitezkeen predikatu sorta handiagoa da ingelesezko predikatuena baino, eta antzekotasuna, erdiko egituren adibide kanonikoetan baino ezin daiteke ikusi.

- (12) a. John cut the bread.
b. The bread cuts easily.
c. Juan cortó el pan.
d. El pan se corta fácilmente. (Hale & Keyser 1988: 51)

Euskaraz ere hala dela gaineratuko genuke guk:

- (13) a. Jonek ogia zatitu zuen.
b. Ogia erraz zatitzen da.

Beste alde batetik, erdiko egituretan modifikatzaile adberbialak agertu beharra dagoela eta, ez dirudi hizkuntza guztietan hala denik. Frantsesez, adibidez, ez dago halako murriztapenik:

- (14) a. Ce papier se lave.
b. Cette racine se mange.
c. Cette solution se discute.

(Zribi-Hertz 1982: 348, apud Ackema & Schoorllemmer 2005)

Ezta gaztelaniaz eta euskaraz ere:

- (15) a. Este papel se lava.
b. Esta raíz se come.
c. Esta solución se discute.
(16) a. Paper hau garbitzen da.
b. Sustrai hau jaten da.
c. Irtenbide hori eztabaidatzen da.

Honi dagokionez, beraz, hiru hizkuntzok ingelesetik bereizten dira:

- (17) a. *This paper washes.
b. *This root eats/consumes.
c. *That solution debates. (Ackema & Schoorllemmer 2005)

Honek guztiak eta orain aipatuko ez ditugun beste ezberdintasun batzuek eraman dituzte Ackema & Schoorllemmer (2005) erdiko egituren artean bi mota bereiztera, hots, 1-motako erdikoak, ingelesaren tipologiari lotzen zaizkionak, hala nola, alemana eta nederlandera, eta 2-motako erdikoak, hizkuntza erromantzeetan jasotzen direnak adibidez —baita grezieraz, norvegieraz, errusieraz eta serbiera-kroazieraz ere—, eta itxura guztiaren arabera, euskaraz ere baditugunak.

Gainerakoan, argitzeke gelditzen da nola daitekeen euskaraz erdikoek egitura itxuraz bera baliatuz, adieraz daitezkeen ebentiboak diren adibideak, hala nola, (6b). Erdiko egiturak estatiboak dira, ez-ebentiboak alegia. Alde horretatik, (6b) harrigarria da, gertaera bat adierazten duelako (atzoko udal osaketan, alkateak erosi zirela alegia). Momentuz eta geroko lanaren zain, gure susmoa da euskaraz erdikoak adierazteko erabiltzen dugun estrategia bera eskura dagoela, beharbada erdikoak ez diren egiturak ere adierazteko.

3. (Euskal) Boza: erdikoak, inkoatiboak eta arazleak eztabaidan

Orain arte, erdiko egiturak izan ditugu mintzagai. Atal honetan, erdikoak, inkoatiboak eta arazleak harremanetan aztertuko ditugu kontuan hartuz zein predikaturen gainean eraiki daitezkeen. Lehenago ere esan dugunez (ikus 1. atala), erdiko egiturak gramatikalak izateko beharrezkoa da predikatuak kanpo argumentu inplizitua izatea. Horregatik, aldaera inkoatiborik ez duten predikatu arazleek (e.g. *atxilotu*) erdiko egiturak osa ditzakete (3.1); aldiz, aldaera inkoatiboa besterik ez dutenek (e.g. *loratu*) ez (3.2). Azkenik, aldaera inkoatibo zein arazlea dituzten predikatuek (3.3) ere erdiko egiturak sor ditzakete.³ Dena dela, bada ezaugarri bat, aldaera inkoatiboa bazterrerara darimana eta aldi berean, erdikoa bultzatzen duena, hots, barne argumentuaren biziduntasunik eza.

3.1. Erdikoak eta aldaera inkoatiborik gabeko predikatu arazleak

Erdiko egituren eta arazle/inkoatibo alternantziaren arteko harremana arakutzen dugunean, kontuan hartu behar duguna da erdiko egitura gramatikala izan dadin, predikatuak kanpo argumentu inplizitua izan behar duela halabeharrez (Keyser & Roeper 1984; Ahn & Sailor 2014; Bhatt & Pancheva 2005 beste askoren artean). Horregatik, aldaera arazlea duten predikatuek, esate baterako, *legeztatu* eta *atxilotu* predikatuek, zeinek kanpo argumentua duten, erdiko egiturak osa ditzakete inongo eragozpenik gabe. Halakoak sarri aurki daitezke corpusetan, *Ereduzko Prosa Gaur (EPG)* corpusetik (Sarasola, Salaburu & Landa 2001-2007) ateratako adibide hauek erakusten dutenez.

- (18) a. Alderdiak legeztatu behar dira. (*Berria*, G. Izagirre, 2006-05-02)
 b. Zuzenketak bi alde zituen: batetik, bikote(kide) homosexualen arteko ezkontzak ezin legeztatu zitezkeela zioen, eta, bestetik, homosexualek bikote zibilak osatzeko eskubidea zutela. (*Berria*, Erredakzioa, 2004-03-31)
 c. Emakume trafikoaren mafiak legeztatu dira, ez besterik. (*Berria*, A. Iban, 2004-03-05)

(18)ko adibideek, gorago (1. taulan) zehaztu ditugun ezaugarri guztiak betetzen dituzte: lehenik, barne argumentua egitura hauetako subjektua da; bigarrenik, kanpo argumentua sintaxitik kanpo dago, eta hirugarren eta azkenik, kanpo argumentua inplizitua dute. Gainerakoan, euskararen tipologiari zor zaizkion ezaugarriak ere erakusten dituzte —orain arte aipatu ez ditugunak euskaraz aski ezagunak direlako—. Batetik, barne argumentuak, egitura hauetako subjektua denak, absolutibo kasua darama; bestetik, edozein egitura iragangaitzetan bezala, *izan* aditz laguntzailea hautatu da eta barne argumentuarekin komunztadura egiten du absolutibo komunztaduraren bitartez. Inkoatiboek ere egitura iragangaitzak diren aldetik, euskararen kasu eta komunztadurari nahiz aditz laguntzaileari dagozkion ezaugarri hauek berak dituzte. Alabaina, ez dirudi erdikoak eta inkoatiboak gauza bera direnik. Batetik, inkoatibo/arazle alternantzia aztertu denean erakutsi denez, *legeztatu* predikatuak aldaera arazlea baino ez du, eta hortaz, ez dualdaera inkoatiborik (Oihartzabal 2003; Berro *et al.* 2018). Hala, (19a) ezin daiteke inkoatibotzat hartu, baina bai, ordea, erdiko bozoko egituratzat —horregatik jarri dugu izartxoaren parentesien artean—. (19b) aldaera arazlea da.

- (19) a. (*) Sexu berekoen arteko ezkontzak legeztatzen dira. (*inkoatiboa/erdikoa)
 b. Sexu berekoen ezkontzak legeztatzen dituzte. (arazlea)

³ Lan honetan ez dugu azterbide formalik egingo ezta euskararako proposatu diren analisiak berrikusiko ere. Boz buruak erdiko egituretan duen zereginaz, ikus Urrestarazu (2018); inkoatibo/arazlerako, berriz, ikus Berro *et al.* (2018).

Bestetik, erdiko egituren ezaugarri nagusietako bat bada kanpo argumentu implizitu bat ego-
tea, orduan erraz uler daiteke zergatik ezin daitekeen (19a) inkoatiboa izan: inkoatiboez ez dute
kanpo argumentu impliziturik onartzen.

Gainerakoan, ez da harrigarria aldaera arazlea dugun kasuetan, erdiko egitura ere eskura iza-
tea. Izan ere, goian (1. atala) erakutsi dugunez, erdiko egiturak predikatu arazle baten gainean
eraiki daitezke (Ahn & Sailor-ek 2014), eta 1-motako erdikoak dituzten hizkuntzetan predikatu
arazle baten gainean baino ez (Ackema & Schoorllemmer 2005). Hortaz, euskaraz arazleak dituz-
ten predikatuetatik espero izatekoa da erdiko egituretan agertzea.

Dena dela, oinarrian predikatu arazle bat izatea ez dirudi nahikoa denik erdiko egitura bat
sortzeko. Adibidez, *atxilotu* ere, *legeztatu* bezala, aldaera arazlea duen predikatua da (20b), nahiz
eta aldaera inkoatiborik (20a) ez duen:

- (20) a. *Jon atxilotu da. (inkoatiboa)
b. Poliziak Jon atxilotu du. (arazlea) (Berro *et al.*, 2018: 18)

Eta printzipioz esango genuke *atxilotu* predikatuarekin erdiko egiturak sor daitezkeela:

- (21) Gazteak erraz atxilotzen dira.

Alabaina, corpusetan ez dugu halakorik aurkitu eta ez dakigu arrazoia zein den. Susmoa
dugu, nahiz susmoa besterik ez den, (18a,b,c) eta (19a) adibideetan barne argumentua bizigabea
izateak —*sexu berekoen ezkontzak*, *bikotekide homosexualen arteko ezkontzak* eta abar— errazten
duela erdiko bozaren irakurketa, nekezago aurkitzen dena, nahiz eta ezgramatikala ez den, barne
argumentua biziduna denean —*gazteak*— (21) adibideetan den bezala. 3.3 atalean ikusiko dugu-
nez, barne argumentuaren biziduntasunak badu eragina erdiko egituraren interpretazioan.

Beste alde batetik, biziduntasunarekin batera, barne osagarriaren zehaztasunak ere eragina du
atxilotu predikatuaren erdiko egituraren zilegiztatzean. Izan ere, barne argumentua entitate zeha-
tza denean, izenordain zehatza (22) adibidez, erdiko egitura ezgramatikala da; gramatikala da, or-
dea, barne osagarria zehaztugabea denean (23).

- (22) *Zuek erraz atxilotzen zarete.

- (23) Gazte asko erraz atxilotzen dira.

Badirudi, beraz, erdikoetan murriztapenen bat edo dagoela subjektuari dagokionez. Hori ez
da, noski, euskarara mugatzen, italiarren ondoko adibide honek erakusten duenez:

- (24) *Io mi trasporto fácilmente.
ni BIHUR garraiatu erraz
'Ni garraiatzen erraza naiz'. (Cinque 1988: 565)

Ackema & Schoorllemmer-ek (2005) euren buruari galdetzen diote ea erdiko egituretako
subjektuak hirugarren pertsonakoak izatea ote den subjektuari eragiten dion *biziduntasunaren*
kontrako baldintza bat (*anti-animacy condition* diote, hitzez hitz). Jakina, halako baldintzarik edo
murriztapenik ez dago inkoatiboetan. Arretaz arakatu beharrekoa da ustezko baldintza hori —er-
diko egituretako subjektua hirugarren pertsonakoa delako eztabaidarako, ikus Urrestarazu (2019)
eta bere aipamenak—.

3.2. *Erdikoak eta aldaera inkoatiboa baino ez duten predikatuak*

Erdikoek kanpo argumentu implizitu bat behar dutela erakusten duen beste ebidentzia bat da aldaera inkoatiboa besterik ez duten predikatuak erdikoetan ezin agertzea. Argi ikusten da hori *loratu* bezalako predikatuetan, hau da, *barrutik arazitako gertakariak* (ing. *internally caused event*) adierazten dituzten horietan (Oihartzabal 2003; Berro *et al.*, 2018).

- | | |
|---|--------------|
| (25) a. Gereziondoak loratu dira maiatzeko eguzkiarekin | (inkoatiboa) |
| b. % Maiatzeko eguzkiak gereziondoak loratu ditu | (arazlea) |
| c. *Maiatzean hainbat gereziondo loratzen dira | (erdikoa) |

Beste hainbat hizkuntzatan gertatzen den bezala, barrutik arazitako gertakariak adierazten dituzten predikatuak nekez onar dezakete aldaera arazlea —zentzu metaforikoan ez bada behintzat (Berro *et al.*, 2018)—. Orobat, ezin dute erdiko egiturarik sortu, kanpo argumentu impliziturik ez dutelako. Horregatik, (25c) ezgramatikala da erdiko interpretazioa emanaz gero.

Beraz, erdikoak eta inkoatiboak iragangaitzak izan arren, ez dirudi sintaktikoki egitura bera izan behar dutenik. Erdikoek kanpo argumentu implizitua dute; inkoatiboek, aldiz, ez. Besterik da kanpo argumentu implizitu hori nola implementatzen den, sintaxitik kanpo badago. Nolanahi ere den, inkoatiboetan ez bezala, kanpo argumentu hori egon badago.

3.3. *Erdikoak eta aldaera inkoatibo zein arazlea dituzten predikatuak*

Azkenik, aldaera arazlea zein inkoatiboa duten predikatuak ere erdiko bozoko egiturak sor ditzakete. 3.1 atalean ikusi dugunez, aldaera arazlea duten aditzak erdiko bozoko egituretan ager daitezke oro har; hortaz, ez da harrizkoa aldaera arazlea zein inkoatiboa dituzten predikatuak ere zilegi izatea erdiko bozan.

- | | |
|-----------------------------------|--------------|
| (26) a. Kristal asko apurtu dira. | (inkoatiboa) |
| b. Kristal asko apurtu dituzte. | (arazlea) |
| c. Kristalak erraz apurtzen dira. | (erdikoa) |

Dena dela, erdikoak eta inkoatiboak ez dira ausaz hautatzen. Izan ere, inkoatibo/arazle alternantzia parte hartzen duten predikatu batzuetan, bederen, berriro ere barne argumentuaren biziduntasunak zerikusia du erdikoaren eta inkoatiboaren arteko hautaketan. Har dezagun *ezkutatu* aditza adibide gisa.

- | | |
|--|--------------|
| (27) a. Umeak eskailera azpian ezkutatu dira. | (inkoatiboa) |
| b. Andereñok umeak ezkutatu ditu eskailera azpian. | (arazlea) |

Bi adibideotan, barne argumentua biziduna da (*umeak*), baina bizigabea denean (28), aldaera inkoatiboa ez dago eskura, eta bere ordean, erdiko egitura baino ezin daiteke eskuratu.

- | | |
|--|-----------------------|
| (28) a. Dokumentuak erraz ezkututzen dira. | (*inkoatiboa/erdikoa) |
| b. Dokumentuak erraz ezkutatu dituzte. | (arazlea) |

Hala, (28a) ezin daiteke inkoatibotzat hartu, dokumentuak berez ezkutatu ezin daitezkeelako, eta kanpo argumentu inplizitu bat (politikariak edo beste) dagoela ulertu beharra dagoelako. Hau da, egitura iragangaitza delarik, predikatua zein den, biziduntasunik ezak zokoratu dezake aldaera inkoatiboa eta erdiko boza bideratu.

Dena dela, ez du horrek esan nahi erdiko boza bideratzeko, barne argumentua nahitaez bizigabea izan behar denik.

- (29) a. Gaitz psikologikoak erraz ezkututzen dira. (erdikoa)
 b. Gaitz psikologikoak dituzten gaixok erraz ezkututzen dira. (erdikoa)

Nolanahi ere den, corpuseko datuetara begira berriro ere, bizigabeak dira barne argumentuak erdiko bozeko egitura askotan, EPGko adibideok erakusten duten bezala.

- (30) a. Jaunak beti ditu aurrean gizakien jokabideak, ez dira ezkututzen haren begietatik (*Elizzen arteko biblia*, Askoren artean, Si 17,15)
 b. Gure sukaldean zeuden familiako gainerako guztiak, mahaiaren inguruan, marrubiei hostoak eta txortanak kentzen, hori ari ziren, behintzat, ustez egiten, zeren marrubi gehienak ahoan barrena ezkututzen baitziren, ontzira joan ordez (*Anne Franken egunkaria*, A. Frank/J. Zabaleta)
 c. Ez, gorde egin beharko genukeen, ezkutatu egin beharko zatekeen: toki sekretu eta ilunen batean ezkutatu (*Eraztunen Jauna III*, J.R.R. Tolkien/A. Otxoa, 101 orr.)

Badirudi, beraz, barne argumentuaren biziduntasunik ezak (edo nahiago bada, bizigabetsunak) erdiko bozaren irakurketa errazten duela (eta zenbait kasutan behintzat inkoatiboa oztopatzen), nahiz eta, ikusi dugunez, ez diren halabeharrez bizigabeak izan beharerdiko egituretako barne argumentuak.

4. Ondorioak

Lan honetan, boza duten hiru egitura aztertu ditugu: erdikoak, inkoatiboak eta arazleak. Urrestarazuk (2019) erakutsi duenez, euskal syntaxian egitura inpersonalak deiturikoen artean, bereziki iragangaizteari esker sortutakoek erdiko egiturei egotzi izan zaizkien ezaugarri berberak dituzte (Ahn & Sailor 2014). Nolanahi ere, euskaraz erdiko bozeko egiturak ez datoz beti bat ingelesezko erdiko egituren ezaugarriekin; izan ere, euskaraz ez dira halabeharrez predikatu arazleak erdiko boza sortarazten dutenak; erdiko bozak ez du nahitaez modifikatzaile adberbialik behar, eta azkenik, aspektu markapena aldatzen bada, interpretazio episodikoa ere izan dezake, ingelesez ezinezkoa dena. Badirudi, beraz, euskal erdiko bozak hizkuntza erromantzeetan aurkitzen diren erdikoen antz handiagoa duela ingelesarena baino, eta Ackema & Schoorllemmer-en (2005) tipologian oinarrituz, 2-motako erdiko delata (frantsesa, gaztelania...), eta ez 1-motakoa (ingelesa, alemana...). Azkenik, erakutsi dugu euskarazko erdiko egitura aldaera arazlea duten predikatuen gainean eraikitzen dela, izan inkoatibogabea (e.g. *legeztatu*) izan inkoatiboduna (e.g. *apurtu*), eta ez, ordea, inkoatiboa besterik ez dutenen gainean (e.g. *loratu*). Horrekin lotuta ikusi dugunez, predikatu batzuetan barne osagarriaren biziduntasunik eragina du bozaren interpretazioan; adibidez, *ezkutatu* predikatuan, barne osagarria bizigabea bada, erdiko interpretazioa nagusitzen da, interpretazio inkoatiboaren kaltetan.

Aipamenak

- Ackema, Peter & Maaike Schoorllemer. 2005. Middles. In Martin Everaert & Henk Van Riemsdijk (ed.), *The Blackwell Companion to Syntax*. vol. 3. Blackwell Publishing. 131-203.
- Ahn, Byron & Craig Sailor. 2014. The Emerging Middle Class. *Proceedings from the 46th Annual Meeting of the Chicago Linguistic Society (CLS 46)*. 357-371.
- Albizu, Pablo. 1997. En torno a la inacusatividad sintáctica de las construcciones impersonales del euskera. *Interlingüística* 8. 13-18.
- Albizu, Pablo. 2001. Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico. *Julio Urkixo Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak (ASJU)* 35 (1). 65-106.
- Bhatt, Rajesh & Roumyana Pancheva. 2005. Implicit arguments. In Martin Everaert & Henk Van Riemsdijk (ed.), *The Blackwell Companion to Syntax*. vol. 3. Blackwell Publishing. 558-588.
- Berro, Ane, Beñat Oihartzabal & Beatriz Fernández. 2018. Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz erator-tzen. In Beatriz Fernández & Ane Berro (ed.), *Euskaratik giza hizkuntzara. Jon Ortiz de Urbinari gorazarre. Fontes Linguae Vasconum* 126. Nafarroako Gobernua. 99-122.
- Cinque, Guglielmo. 1988. On si constructions and the theory of arb. *Linguistic Inquiry*. 19: 521-582.
- Euskaltzaindia. 1991. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I (EGLU I)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna (EGLA)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hale, Kenneth & Samuel J. Keyser. 1988. Explaining and constraining the English middle. In Carol L. Tenny (ed.), *Studies in Generative Approaches to Aspect. [Lexicon Project Working Papers 24]*. Cambridge, MA: Center for Cognitive Science, MIT. 41-57.
- Keyser, Samuel Jay & Thomas Roeper. 1984. On the middle and ergative constructions in English. *Linguistic Inquiry* 15. 381-416.
- Laka, Itziar. 2003. Ari progresiboaz: euskararen kasu markak. In Pablo Albizu & Beatriz Fernández (ed.), *Euskal gramatika xxi. mendearen hasieran: arazo zaharrak, azterbide berriak*. UPV/EHU. 111-132.
- Laka Itziar. 2006. Deriving Split-ergativity in the progressive: the case of Basque. In Alana Johns, Diane Massam, & Juvenal Ndayiragije (ed.), *Ergativity: Emerging Issues*. Dordrecht/Berlin: Springer. 173-195.
- Oihartzabal, Beñat. 2003. Lexical causatives and causative alternation in Basque. *ASJUren Gehigarriak* 46. 223-253.
- Ormazabal, Javier. 2008. Kausatibo aldizkatzeak euskaraz eta inguruko hizkuntzetan. In Xabier Artiagoitia & Joseba A. Lakarra (ed.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez. ASJUren Gehigarriak* 51. 643-663.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1991. Deskribapenetik azalpenetara euskal gramatikan. In Adolfo Arejita (ed.), *Euskal Sintaxiaz*. Bilbo: Labayru. 11-27.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2003. Impersonal clauses. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 572-591.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2011-2019. Aditz inpersonalak. In Pello Salaburu, Ibon Sarasola & Patxi Goenaga (ed.), *Sareko Euskal Gramatika(SEG)*. [Interneten eskuragarri: http://www.ehu.eus/seg/morf/5/12/2/2#predikatu_inpersonalak; azkenbisita: 2019-06-21].
- Ortiz de Urbina, Jon & Myriam Uribe-Etxebarria. 1991. Participial predication in Basque. *Julio Urkixo Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak (ASJU) [Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum]* 14 (2).993-1012.

- Sailor, Craig & Byron Ahn. 2010. The Voices in our Heads: the VoiceP in English. In *Morphological Voice and its Grammatical Interfaces*. Esku-orriak, University of Vienna.
- Salaburu, Pello & Maite Lakar. 2005. *Baztangomintzoa: gramatika eta hiztegia*. Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Salaburu, Pello, Patxi Goenaga & Ibon Sarasola. 2011-gaur arte. *Sareko Euskal Gramatika*. [Interneten eskuragarri: <https://www.ehu.eus/seg/>; azkenbisita: 2019-06-24].
- Sarasola, Ibon, Pello Salaburu & Josu Landa. 2001-2007. *Ereduzko Prosa Gaur (EPG)*, UPV/EHU, Euskara Institutua. [Interneteneskuragarri: <http://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>].
- Siewierska, Anna. 2013. Passive constructions. In Matthew Dryer & Martin Haspelmath (ed.), *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. [Interneten eskuragarri: <https://wals.info/chapter/107>, azkenbisita 2019-06-24].
- Urrestarazu, Iñigo. 2019. *Nire barruko Setatsua: (euskal) boza eta erdiko egiturak*. Gradu Amaierako Lana. UPV/EHU.
- Zribi-Hertz, Anne. 1982. La construction ‘se-moyen’ du français et son statut dans le triangle moyen-passif-réfléchi. *Linguisticae Investigationes. International Journal of Linguistics and Language Resources* 6. Amsterdam/Philadelphia : John Benjamins. 345-401.